

## **UDALTZAINGOA GARBERARENTZAT LANEAN ARI DELA-ETA LAB SINDIKATUAK EGINDAKO SALAKETARI BURUZKO PREMIAZKO INTERPELAZIO ZUZENA**

Jabier Vitoria Romak, EH BILDUko udal taldeko zinegotziak, Osoko Bilkuraren Araudi Organikoaren 97. artikulua babesean, honako **PREMIAZKO INTERPELAZIO ZUZEN** hau aurkezten dio alkateari Udaltzaren osoko bilkuran ahoz erantzun dezan, Udaltzaingoa Garberarentzat lanean ari dela-eta LAB sindikatuak egindako salaketaz.

### **JUSTIFIKAZIOA**

LAB sindikatuak jakinarazitakoaren arabera, azaroaren 24az geroztik, Bidebieta-Altza-Herrera-Larratxo inguruan patruilatzen ari diren udaltzainei agintzen ari zaie 45 minutuko oinezko patruilak egitea Garbera merkataritza gunean, gune hori irekita dagoen lan txandetan.

Merkataritza gune horrek segurtasun pribatuko enpresa baten zaintza zerbitzua du.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako **INTERPELAZIO** hau aurkezten du:

- 1.- Zer dela eta udaltzainak, Donostiako langile publikoak, zaintza egiten ari dira Garberan, enpresa pribatu baten merkataritza gunean?
- 2.- Zer dela eta erabiltzen ari dira barruti zabal hori zaintzen duten patruilak merkataritza gune pribatu batean lan egiteko, aipatutako auzoetan prebentzio patruila arruntak egiteari utzita?

Donostian, 2023ko abenduaren 19an

**Sin.: Jabier Vitoria Roma**  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**